



## **Egurrezko ontzietan egindako Euskal Herriko VI. sagardo lehiaketaren oinarriak:**

- 1.- Euskal Herriko edozein sagardogilek parte har dezake, lanbide duenak edo ez, sagardotegietakoak bezala etxerako egiten duenak ere.
- 2.- Sagardogile bakoitzak 8 sagardo botila ekarriko ditu, denak kalitate berekoak.
- 3.- Botila "sagardo botila" bezala ezagutzen dena izango da. Garbiak izango dira, ez dute inolako arrastorik edo etiketarik izan behar.
- 4.- Botilak Maiatzak 31ko 19:00ak baino lehenago Usurbilgo ALKARTASUNA Baserritarren Kooperatibaren egoitzan entregatuko dira (ordutegia: 09:00-13:00 eta 16:00-19:30. • Atallu Industrialdea 26, 20170 USURBIL, Gipuzkoa • +34.943 361 114 • [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) )
- 5.- Epaimahaiak lehen dastaketa batean, azken dastaketara igaroko diren sagardoak aukeratuko ditu, gainontzekoak lehiaketatik baztertuz. Azken dastaketa horretan erabakiko da zeintzuk diren lehen sari nagusia, bigarrena eta hirugarrena eskuratuko duten sagardoak. Era berean dastaketa horretara iritsi diren sagardo guztien sailkapena egingo da. Sagardoa ekarri duten partaide guztiek dastaketan parte hartzea eskatuko zaie.
- 6.- Sari banaketa azken dastaketa burutu eta jarraian egingo da. Saria jasotzeko unean eskuratzen duen sagardogilea bertan izango da, bestela hurrengoari emango zaio.
- 7.- Lehiaketan parte hartzen duten sagardogile egileek oinarri hauek onartzen dituzte.
- 8.- Lehiaketan bertan inolako zalantzarik sortuko balitz epaimahaiak berak erabakiko du egoki deritzona.
- 9.- Dastaketan erabili ez diren sagardo botilak antolatzaileen esku geratuko dira.
- 10.- Sariak honako hauek izango dira:
  - LEHENENGO SARIA: Usurbilgo Herriko Etxea Saria diren 1000€ eta Sariaren Ziurtagiria
  - BIGARREN SARIA: Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 450€ko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagiria
  - HIRUGARREN SARIA: Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 100€ko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagiria
- 11.- Lehiaketaren azken dastaketa eta sari banaketa Usurbilen burutuko da, 2024ko Ekainaren 9-an 12:30etan, Aginagako Eliza Zaharreko oholtzan. 09:30 irekiko da aretoa eta dastaketa 10:00etan hasiko da. Sagardogile guztiak bertan izan beharko dira.
- 12.- Partaide bakoitzak gehienez 2 sagardo desberdin aurkeztu ahal izango ditu.